Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4274

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 18koa, Inmigrazioko zuzendariarena, erakunde publikoek eskuhartze sozialaren esparruan laguntza tekniko edo administratiboa izateko eta programa, proiektu eta jarduerak garatzeko dirulaguntzei buruzko ebazpen-proposamena egin behar duen Balioespen Batzordeko kideak izendatzen dituena.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko maiatzaren 19ko Aginduaren bidez (EHAA, 2010eko ekainaren 9koa) erakunde publikoek eskuhartze sozialaren esparruan laguntza tekniko edo administratiboa izateko eta programa, proiektu eta jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako deia egiten da.

Aipatutako Aginduaren IV. Kapituluak dirulaguntzen hirugarren lerroa arautzen du: Immigrazioko langile teknikariak kontratatzeko eta kultura arteko bizikidetzaren alorreko jardueretarako laguntzak, hain zuzen ere.

Agindu horren 26. artikuluan adierazitakoaren arabera, Immigrazio Zuzendaritzari dagozkio hirugarren laguntza-lerroan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko eta ebazteko lanak egitea.

Aipatutako Aginduaren 9.2 artikuluaren arabera, dirulaguntzen lerro bakoitzerako, kudeatu eta ebazteko eskumena duen zuzendariak Balioespen Batzorde bat hautatuko du, eta Batzorde horrek dirulaguntzen ebazpen-proposamena emango du.

Era berean, Aginduaren 9.3 artikuluari jarraituz, Kide Anitzeko Organo hori gutxienez hiru pertsonak eta gehienez sei pertsonak osatuko dute, beti ere Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Zuzendaritzetako goi-karguak edo funtzionario edo lan-kontratuko langileak badira eta gizarte-gaietako arloan, drogamendetasunen arloan, gizarteratzearen arloan eta immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloan eskumena badute, Zuzendaritza horietako bakoitzak proposatuta.

Horrez gain, artikulu horrek kasu bakoitzean dirulaguntzen lerroa kudeatzen duen Zuzendaritzako funtzionario edo lan-kontratuko langile batek Kide Anitzeko Organoaren idazkari gisa jardungo duela adierazten du. Eta baita Organo horien osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela ere.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

4274

RESOLUCIÓN de 18 de junio de 2010, del Director de Inmigración, por la que se nombra a las personas que forman parte de la Comisión de Valoración, encargada de formular la propuesta de resolución de las ayudas económicas para el apoyo técnico o administrativo y el desarrollo de programas, proyectos o actividades por parte de instituciones públicas en el ámbito de la intervención social.

La Orden de 19 de mayo de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales (BOPV de 9 de junio de 2010) convoca las ayudas económicas para el apoyo técnico o administrativo y el desarrollo de programas, proyectos o actividades por parte de instituciones públicas en el ámbito de la intervención social.

En concreto, el Capítulo IV de dicha Orden regula la tercera línea subvencional: ayudas para la contratación de personal técnico en inmigración y para actividades en materia de convivencia intercultural.

El artículo 26 de la mencionada Orden establece que corresponde a la Dirección de Inmigración la realización de las tareas de gestión y resolución de las ayudas previstas en la tercera línea de ayudas.

Según el artículo 9.2 de la Orden, para cada línea subvencional, la Directora o Director competente para la gestión y resolución designará una Comisión de Valoración, que formulará la propuesta de resolución de las subvenciones.

Así mismo, el artículo 9.3 de la Orden especifica que dicho Órgano Colegiado estará compuesto por no menos de tres y no más de seis personas con la condición de alto cargo o de personal funcionario o laboral de las Direcciones del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales competentes en materia de servicios sociales, drogodependencias, inclusión social e inmigración e interculturalidad, a propuesta de cada una de dichas Direcciones.

Además, el citado artículo establece que una persona funcionaria o laboral perteneciente a la Dirección que, en cada caso, sea la gestora de la línea de subvenciones, actuará como secretaria del Órgano Colegiado. Y que la composición de estos Órganos será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Aurrekoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Erakunde publikoek eskuhartze sozialaren esparruan laguntza tekniko edo administratiboa izateko eta programa, proiektu eta jarduerak garatzeko dirulaguntzei buruzko ebazpen-proposamena egingo duen Balioespen Batzordean parte hartuko duten pertsonak izendatzea. Dirulaguntza horietarako deia Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko maiatzaren 19ko Aginduaren bitartez egin da (EHAA, 2010eko ekainaren 9koa).

Mahaikideak:

– Edurne Ramón Olano, Immigrazio Zuzendaritzako teknikaria.

– José Manuel Meaurio Antón, Immigrazio Zuzendaritzako teknikaria.

– Rosa María Urrutia Urresti, Immigrazio Zuzendaritzako teknikaria, idazkari-lanak egingo dituena.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen eta beronen kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Gizarte Gaietako sailburuordeari, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 18a.

Inmigrazioko zuzendaria,
MIGUEL ÁNGEL GONZÁLEZ MARTÍN.

De conformidad con lo anterior,

RESUELVO:

Artículo único.– Nombrar a las siguientes personas como miembros de la Comisión de Valoración encargada de formular la propuesta de resolución de las ayudas económicas para el apoyo técnico o administrativo y el desarrollo de programas, proyectos o actividades por parte de instituciones públicas en el ámbito de la intervención social, convocadas mediante la Orden de 19 de mayo de 2010 (BOPV de 9 de junio de 2010).

Vocales:

– Dña. Edurne Ramón Olano, técnica de la Dirección de Inmigración.

– D. José Manuel Meaurio Antón, técnico de la Dirección de Inmigración.

– Dña. Rosa María Urrutia Urresti, técnica de la Dirección de Inmigración, que actuará como secretaria.

Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá el/la interesado/a interponer recurso de alzada, ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de junio de 2010.

El Director de Inmigración,
MIGUEL ÁNGEL GONZÁLEZ MARTÍN.